

Gauez umea negarrez.

Amak adituari arazo batzuk aipatu dizkio. Zer gomendatu dio kasu bakoitzean?

Audioa entzun, eta erantzun.

1. Umea negarrez esnatu eta titia ematen diot.
 - a) Titia eman ez, baina bere ondora joan. Askotan, titia eskatzeak amarekin egon nahi duela esan nahi du.
 - b) Titia eman. Umeak eskatzen du amarekin egon nahi duelako eta gose delako.
2. Esnatu eta gurasoen ohera eramaten dugu; bestela, negar egiten du.
 - a) Utzi behar da negar pixka bat egiten, eta gero bere bila joan gurasoen ohera eramateko.
 - b) Utzi behar da negar pixka bat egiten, lehenengo negararekin ez joan bere bila.
3. Negar egiten du eta beste umea esnatzen du.
 - a) Ez utzi negar egiten: beste umea esnatuko da eta biak hasiko dira batera negarrez.
 - b) Merezi du negar egiten uztea tarte batean. Horrela, umeari ere burua lasaitzeko errekurtsoak aurkitzeko aukera ematen diogu.
4. Aita joaten da eta ez da isiltzen, ni joan eta titia eman arte.
 - a) Aitaren zeregina berarekin jolastera mugatu beharra dago. Dudarik gabe, amak bakarrik daki nola lasaitu bere seme edo alaba.
 - b) Ama une oro beretzat ez dagoela ikasi behar du, eta horretarako, aitak zeregin hori hartu behar du egunez eta gauez, eten hori, poliki-poliki, emateko.

Transkripzioa

Esataria: Telefonoz beste aldean badugu lagun bat. Kaixo Elisabet, egun on.

Elisabet: Egun on.

Esataria: Zer galdera egin nahi duzu zuk?

Elisabet: Nik kontsultatu nahi nioke. Nik dauzkat urte beteko bi(z)kiak, neska eta mutila. Eta, gaeuz, neska ez da batere esnatzen, baina mutila bi edo hirutan esnatzen da eta titia eskatzen dit. Zer egin beharko nuke, negar egiten utzi?

Miren Garbizu: Begira, nik uste dut, gauetan horrela, adin horretan esnatzen direnean haurrak, askotan ez da titia nahi dutela. Titia da amaren ondoan egotea, e? Orduan batzuetan behar izaten dugu muga bat jarri "maitea bai, esnatu zara eta zure ohera joango naiz". Eta erantzuna beti ezin da izan titia emanaz, e? Zeren, batzuetan ez da hori, titia ematea da amarekin egotea.

Elisabet: Bai, bai, nik uste dut hori nahi duela berak. Eta gainera, igual nik gaizki egin dut, baina, hasieran eskatzen zidanean nik gure ohera pasatzen nuen. Eta, klaro, jada, ohitu egin da gurekin batera egoten. Eta orain jendeak esaten dit "orain egin behar diozuna da: utzi negar egiten".

Miren Garbizu: Bueno, nik uste dut negar saio batzuk egin beharko dituela. Hor ere gurasoek baloratu behar dugu zenbateraino momentu horretan ume horrek soportatu dezakeen. Ba, bueno ez dizut honekin esaten gau guztia negarrez edukitzea, ez da hori. Baina egia da, baita ere, batzuetan gurasoak lehenengo negarrekin jada, joan egiten gara.

Esataria: Eta behar bada, Elisabetek arrazoi gehiago, ze, beharbada usteko du neska ere esnatu egingo diola anaiak.

Elisabet: Bai gela berean daude biak. Orduan, segituan, negarrez hasten den bezain pronto hartu egiten dut, bestea ez esnatzeko.

Miren Garbizu: Bai, ulertzen dizut, ez da erraza izaten egoera hori, e? Bi dituzunean. "Aber biak hasten zaizkidan hemen eta aber nik zer egiten dudan", ezta? baina bueno, nik uste dut nolana besteari utzi egin beharko zeniokeela. Zeren eta askotan beraiek, uzten ditugunean tarte batzuetan beraiei ematen diegu aukera beraien errekurtsioak bila ditzaten. Batzuetan behatza sartuko dute eta lo egingo dute. Beste batzuetan jarraitu egingo dute. Baina nik esango nizuke, igual, erantzun bezala, "negar egin duzu gaeuz, titia emango dizut" hori... hor beste erantzun batzuk sartu beharko zenituzkeela, agian. "Edukiko zaitut hor, ohean jarraituko duzu, ni egongo naiz pixka batean zure ondoan agian...", baina ez behintzat erantzun automatiko hori eman, zeren, bestela ez zaizu hortik hain erraz aterako, e?

Esataria: Pausoka-pausoka. Beraz, orain, negarra egin orduko ama joaten da eta amak, gainera, gurasoen ohera eramaten du. Lehenbiziko pausoa izango litzateke berarekin gela berdinean geratzea, eta beharbada, hurrengo pausoa, amaren partez aita joatea.

Miren Garbizu: Bueno, nik uste dut hori oso inportantea izaten dela, hor aita sartzea, e? Aitak- beste noizbait hitz egingo dugu, agian emango digu denbora aitaz hitz egiteko-, zeren nik uste dut aitek oso rol inportantea dutela gure seme-alaben ondoan. Eta bat da amari esatea, "txit!, et!". Eta kitto.

Elisabet: Guk egin izan dugu, e? Aitak hartu, edo... baina, bueno, jartzen da, bueno! Ni joan arte eta eman arte... ez da isiltzen aitarekin ere!

Miren Garbizu: Hori da, hara, nolabait eskatzen ari dena da "ama niretzat" denbora guztian, ezta? Hor, nik uste dut, ez bakarrik gauean, egunez ere agian, mutikoari esan behar zaio. "Aizu, ama zuretzat denbora guztian ez, agoantatu zaitez pixka bat. Eta, bai, ikusiko duzu nola moldatuko zaren bakarrik ere ama denbora guztian eduki gabe ondoan". Eta egunez, aitak sartu beharko du momentu askotan hor, eten hori poliki-poliki egin dadin.

Miren Garbizu. Euskadi Irratia

Erantzunak

1. **A)** Titia eman ez, baina bere ondora joan. Askotan, titia eskatzeak amarekin egon nahi duela esan nahi du.
2. **B)** Utzi behar da negar pixka bat egiten, lehenengo negarrarekin ez joan bere bila.
3. **B)** Merezi du negar egiten uztea tarte batean. Horrela, umeari ere burua lasatzeko errekurtsioak aurkitzeko aukera ematen diogu.
4. **B)** Ama une oro beretzat ez dagoela ikasi behar du, eta horretarako, aitak zeregin hori hartu behar du egunez eta gauez, eten hori, poliki-poliki, emateko.